

EUSKERAREN ETORKIZUNA NOLA LORTU GENEZAKE?

Nafarroan euskeraren lege aldakera egin naiean erdaldunduta daudenak astiro euskaldun biurtu ditezen, joan dan illaren bostean izandako batzar orokorrean, zuek anal Erri Batasuntarrak artu zenuten erabakia aldenduaz, guztiz mindurik agertzen det nere samintasuna.

Zer nai dezute anaiok, baserria altxatzerakoan lenengo teilatua ipiñi eta era berean ereiñotz edo erramua teilatu gañean ezarri, oiñarriak jartzen aurretik?.

Txindoki edo Zerbino mendietara igo nai dezute aurreko ormarri ikaragarri aietatik, amar millatik batek bakarrik goia arrapatu lezakela, eta ostez-oste danok igo geinkeala ziurtasun guziaz aurrez jakinik?.

Erribera euskalduntzea ez da egun bat edo biko eginkizuna emen-go jokaera ikusirik, urteetan zear egitekoa baizik eta leenengo oinkada emateko era izan danean, zalantzan, geldi edo atzera egin bearrean, gutsi izanik ere, oinkada ori eman bearren ziñaten. Negargarria da euskotarren artean gertatzen zaiguna, ezin bein ere alkar artu aberriaren aide egiteko. P.N.V.ko burukideak berriz, denekin itz egiteko ordua iritsi dala eta, arerioekin, naiz sozialista edo P.P.koekin, bereala artu emonetan dezute, bañan naiago ipurdia erre, euskotarrekin itz egin baño; Oñaz eta Ganboatarren antzera ibilli bear ote degu gure edesti luzean zear! Nun daukagu buruaxori-buruen antzera arroputz orrela ibiltzeko?

Gauza guzietan era orretan, etsaien parregarri gera, eta batak besteengatik, etxea zikin erraztatu gabe eta beti esku utzik izango gera. Askatasuna lortuko badegu, ikasbide obeagoa eskeini bearrean gera baita euskera aurrera atera nai badegu, zentzuna agertuaz, gure izkuntza erabilliaz.

Gazteak, zeuen eskuetan dago Erri onen etorkizuna, eutsi egiozue euskerari, emen borrokatu bear dozue baina ez leerkaiaz eta zurupadakaz, ez jauna, gure izkuntza mintzatuaz.

Or dezute non murgildu gure Izkuntza eta Lurra maite badezute. Ori litzateke gure Erriaren etorkizun zoriontsua.

Ez da naiko Euskal Erria mingañagaz maite degula esatea, eginkizunekin azaldU bear degu gure maitasuna.

Ortarako egiñez eta egiñez euskaldunduz eta gure izkuntzan mintzatuaz azaldu bear degu gure naia, oinkadak aurrera egiñez.

Agur bada guzioi.

Irakurlea: Artolazabal´tar Ilarik irakurrita - Urte asko Bizkaian - Ilari´k idatzitakoa

